

Arrasate

UP RE S S

1996ko
Maiatzak 10
319. zenb.

BERRIAK

**Unibertsitate
proiektua
Arrasaten**

KULTURA

**Gurutze
Uribarren**

IRITZIA

**Arrasateko
Antimilitaristak**

KIROLAK

**San Andres
Txapelketako
irabazleak**

IKUSPEGIA

Mikel Irizar

Xabier Retegi

“Aukera asko dago Enpresa Berriendako Zentroak Arrasaten arrakasta izan dezan”

Pentsakera estrategikoa landuz.

Partizipazioa bultzatuz.

Gizartean eraginez.

Etorkizuna egiten.



SAN VIATOR
IKASTOLA
Arrasate Pasealekua, 10
ARRASATE
Tfnoa: 79 04 11

Matrikulazio epea zabalik maiatzaren 2tik 17ra.

Gure Luis

Luis gurea Luis Fernandez da, ARRASATE PRESSEN eta ATBn ezagutu genuena. Hemen izan genuen denboran, nabarmen azaldu zituen kazetari sena, idazteko trebetasuna eta bere ideien zorrotza. Baita telebistan txaketa jazteko zuen grazia eskasa ere. Baina nik aitortu behar dut Luis Fernandez oraintsu deskubritu dudala, "Tetris" izeneko bere liburua irakurri dudanean, hain zuzen.

Liburu horretan han-hemenka idatzitako hainbat artikulua eta zutabe bildu ditu Luisek, ARRASATE PRESSEN idatzitako batzuk barne. Eta gainera "Ierro solteak" izen apala duen atalean, inon argitaratu gabeko burutazio luzeago eta sakonagoak. Hor aurkitu dut nik, batez ere, pentsalari zorrotza, ausarta, berritzailea eta interesgarria. Hor egiten ditu Luisek garrantzi handiko ekarpenak, alderdi politikoek kanpainetarako diru mordoa gastatuz prestatzen eta saltzen dituzten sasi-programak baino mila aldiz baliotsuagoak.

Herri honek dituen zorigaitzen artean ez da makalena bakoitzak bere kabuz pentsatzeko dugun ohitura falta. Eta ondorioz, eginda datozkigun ideietara

lerratzeko dugun joera. Hori bai, behin ideia batekin bat egiten dugunean, inork ez gaitu aldaraziko, gure horretan jarraitzen dugu temati, ideiak aldatzea txaketero izatea dela gogor argudiatuz. Eta horrela iritsi zaizkigu erosotasun antzua, topikoetan ibiltzea, urrezkoa omen den mediokritatea, eta konformismoa baloretzat hartzea.

Horrelako kezkarik duzenoi biziki gomendatzen dizuet "Tetris" irakur dezazuen. Ez preziso Luisen planteamendu guztiekin bat natorrelako, ez. Luisek badu bihurkeriarako joera nabarmena, bere erreflexioen ondorioak sarritan bide ezkor edo txokanteetara eramaten dituena. Ziur nago Luisek gogoko duela "épater les burgeois" zioen lelo hura.

Gure Luisen liburu honen baliorik handiena bere indarra da, buruan uhartuta eta geldirik daukagun makina berriro martxan jar lezakeen indar eragilea. Berak dioen ondorioetara edo bakoitzak nahi dugunetara mugiaraziko gaituen bultzada. Ez da gutxi liburu baten prezioan erosteko.

Eta, Luis, ez deustak honegatik afaririk zor.


MIKEL IRIZAR

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikazioa:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

IBARRA Garajea S.L.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ITSASKI ARRANDEGIA

**Arrain freskoa
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Ezezagunaren lilura

Kafeinaz pozoinduta idatzitako lerroak-

Ez al da zoragarria, bakkarra, berezia eta errepikaezina izatea? Bai pertsona edo eta gauza bat gogoratzerakoan, kalifikatibo hauek ez al dute gauza edo pertsona horien balioa gehiagotzen?

Hain zuzen ere, berezitasun hau da leku edo pertsona berri batekin topo egiterakoan harritzen gaituena. Honez gain zorutzen gaituenak, leku edo pertsona ezagun batek erakartasun hori ez galtzea da.

Hala ere, nahi eta nahi ez, gerta daiteke nabaritzen dugun berezitasun hau azalekoa edo superfiziala izatea.

Beraz hasiera batean liluratu gaituen artifizialtasun hori, denborarekin ahultzen eta desegiten doa, ahaztua, ignoratua edo eta gorrotatua izan arte.

Frustazio mota hau askotan jende ezagunekin nabari izan dut. Argi dago ezezagun batengan gure imaginazio eta desioak ez duela mugarik ezagutzen. Ametsen edo desioen ondoren, arazok datoz. Hau da, amesten edo desiratzen ezin jarraitu.

Beharbada gure desioen nahia edo pentsakera da guretzat erakargarriena, eta ez desioa bera eskuratzea.

Nire ustez, desioa bereganatzen dugunean ez dago desio gehiagorik. Edo eta, desioa eskuratzerakoan, hau desagertu edo ahuldu, eta beste berri bat sortzen zaigu, eskuratu berri dugun desioa desiatzen jarraitu ezinik. Gure desira desbideratua izan da.

Hor dago joko guztien gakoa: nahiz eta gure desioa bete, desiratzen jarraitu, desioa gozatu.

Beraz, saiatu zaitezte

zuen desioak desiratzen eta gozatzen, arazo gutxiago izango duzue eta.

IBAN DEL CAMPO

Pirolenoaren arriskuak

Azkenaldian ingurunean A eragin txarra duten fenomenoak azaltzen ari dira. Horretariko bat instituzioek PCB izeneko isurketa kutsakorrei ematen dioten tratamendua da.

1993an Fagor Ederlanen piroleno izeneko olio transformatzaileak erre ziren, langileendako eta suhiltzaileendako gas arriskutsuak sortaraziz. Egun hauetan ezustekoa gertatu da berriz, oraingoan Arrasaten, Muebles Pereda zaharraren pabilioian, gaur egun Pesa enpresaren jabegoa. Norbaitzuk transformadorea apurtu ondoren pirolenoa filtratu zen pabilioian eta Istingarrekian, biak kutsatuz. Pabilioian egin ziren neurketek kiloko 109 miligramoko emaitza erakutsi zuten, onartutako 50aren aurrean. Errekan egin beharreko neurketak falta dira, PCBak oso nekez biodegradatzen dira eta.

PCBa kloroaren kimikak utzi duen ondorio arrisku-tsuenetariko bat da, eta gaur egun mundu zibilizatuaren janari kateak kutsatzen hasi da gizakiaren osasunarentzat mehatxu handia izanez. Residuo moduan, transformadore elektrikoetan ezezik, garbigailuetan, ontzigarbigailuetan... aurkitzen da, orain urte batzuk egindakoak badira behintzat. 1985. urtean EEak PCBaren produkzioa debekatu zuen, baina zerbitzuan zegoen tresneria zaharkitu artean libre utziz.

Honen aurrean uste dugu

Udalak Jaurlaritza eta Madrilgo gobernuaren laguntzaz heldu egin behar diola gaiari. Lehen urratsa araudi bat egitea izan behar litzateke, pirolenodun transformadoreen bat duten enpresak horren berri eman eta olio aldatzera behartuz. Era berean PCBa duten elektrogailu guztien azterketa egitea komenigarria izango litzateke, jendeak txatarretara bota aurretik zer egin behar duen jakin dezan.

Helburua ez da inor beldurtzea, baina geroz eta beharrezkoagoa ikusten dugu Arrasateko Udalean Ingurugiro Zinegotzia, erakunde ekologistekin batera errekurtso naturalek jasaten duten erasoaren aurrean plangintza orokor bat egin dezan. Prebentzio lana behar da, lan handia egiteko dago eta.

Espero dezagun Udaltxean Ingurugiro Zinegotziaren figura sortzeko eskaerari uko egin izana, ez izatea askatasunaren beldurra ondoriora, behin martxan jarri ondoren iritziak kontrastatu behar direlako.

Bukatzeko PCBaren arazoari premiazko irtenbide bat ematea eta jendeari behar beste informazio eskaintzea eskatzen dugu.

MIKEL OLABE, EKI

Oharra


Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzeailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

Zelan gogoratzen duzu Jaunartze eguna?



Maite Villar
Ikaslea
(23 urte)

Gogoratzen dudanez neska guztiak soineko zuriarekin jantzita zeuden eta ni, berriz, beig koloredunaz. Gainera, uste baino opari gutxiago jaso nuen.



Antonio Tena
Langabezian
(36 urte)

San Isidro elizan egin nuen jaunartzea, Zigarrolako jaiak zirenean. Horregatik, eman zidaten dirua jaietan gastatu nuen. Txaketa, gomazko korbata, fraka motzak eta txarolezko zapata beltzak jantzi nituen egun horretan.



Edurne Garcia
Ikaslea
(20 urte)

Ahizparekin batera egin nuen Jaunartzea, eta horrela, familia behin bakarrik bildu behar izan genuen. Opariak baino, dirua eman zidaten batez ere.




Roberto Aranzabal
Jubilatua
(67 urte)

Oso egun polita izan zen, nire bizitzako egun garrantzitsuenetarikoa. Gerra denboran egin nuen Jaunartzea, zortzi urterekin.



Carmen Irasuegi
Etxekoandrea
(68 urte)

Egun hori ez dut ondo gogoratzen, baina badakit zuriz jantzita joan nintzena. Sei ahizpa gara eta guztiak soineko berarekin egin genuen Jaunartzea.



Ignacio Antonio
Langabezian
(35 urte)

Gorriñarekin esnatu nintzenez, ezin izan nuen gaintzeko lagunekin egin. Egun horretan beste eliza batera joan eta bakarrik egin nuen Jaunartzea.



Begoña Gantxegi
Dendaria
(49 urte)

Egun horretan gaisotu egin nintzen, eta ondorioz, hamabost egun beranduago egin behar izan nuen Jaunartzea. Zuriz jantzita joan nintzen, aurpegia apur bat estalita nuela.



Jon Inda
Ikaslea
(17 urte)

Ilusioz joan nintzen. Txaketa orlegi bat jantzita egin nuen. Batez ere dirua eman zidaten.

Dena taila handietan!

Merche
moda

Erdiko Kale, 19
ARRASATE
Tfnoa: 79 17 92

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 10
 Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Larunbata 11
 Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin. Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.

Igandea 12
 Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Astelehena 13
 Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Asteartea 14
 Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

Asteazkena 15
 Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Osteguna 16
 Gaueko 10ak arte: Iturriotz. Español. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

10 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Tesis" arratsaldeko 7etan eta 10etan.
- **BESAIDEREN MENDIASTE**
 Diapositiba emanaldia. Gaia: "Laino gainetik". Emalea: Juan Tomas. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen. Besaidek antolatuta.
- **HITZALDIA ARETXABALETAN**
 Gaia: Objezio fiskala. Arratsaldeko 7.30etan Udaletzeko Ganbaran. Aretxabaletako talde antimilitaristak antolatuta.

11 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "12 monos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **MENDI BIZIKLETA IRTEERA**
 Ibilbidea: Musakola, Udala, Besaide, Tellamendi, Etxaguen, Kurtzeta, Untzilla, Musakola. Irteera goizeko 9.30etan Musakolako kiroldegitik. Besaidek antolatuta.
- **DEBA GARAIOK ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN IX. TOPAKETAK**
 Deba Garaiko eskola arteko abesbatzen topaketak Amaia antzokian. Goizez 11.30etan hasita eta arratsaldez 5etan. Ikastetxeetako hainbat taldek hartuko du parte eta gonbidatu gisa Gokobalu txiki izango da. San Franzisko Xabier ikastolak antolatuta.
- **ARGAZKI IKASTAROA**
 Goizeko 10etatik 1.30ak arte, ASAren lokalean. Gaztedia batzordeak eta ASAK elkarlanean antolatuta.
- **MOTOZALEEN VII. KONZENTRAZIOA**
 Eguerdiko 1.30etan izenematea zabalduko da. 6etan jokuak. 7.30etan motozaleen paseoa. 9.30etan afaria Kataiden. 11.30etan motozaleen jaia. 12.30etan Ostarku diskotekan jaia. Arrasateko Motozale Elkarteak antolatuta.

12 IGANDEA

- **ZINEA**
 "12 monos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **MENDI IRTEERA BESAIDERKIN**
 Auñamendira joango dira. Irteera goizeko 6etan Garibaitik.
- **HERRI URRATS EGUNA**
 Herri Urrats ospatuko da Senperen. Arrasateko autobusa goizeko 8etan Zaldibartik.
- **SENITARTEKOEN XI. TOPAKETAK AITA MENNIN**
 Senitarteko topaketak Aita Menni ospitalean. Topaketek gaixo, eta senideen arteko harremanak sendotzea dute helburu.
- **MEZA PARROKIAN**
 Gaixo eta jende nagusiaren aldeko meza Parrokian goizeko 11etan. Meza ostean luntxa izango da Abaroan.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Elgoibar, Mendaro, Deba, Itziar Gaiña, Lastur, Sasiola, Maltzaga, Arrasate (89km). Irteera goizeko 9.15etan Monterrondik.
- **MOTOZALEEN VII. KONZENTRAZIOA**
 Goizeko 9etan diana. 10.30etan motozaleen paseoa. Ibilbidea: Arrasate, Otxandiano, Gatzaga eta Arrasate. Eguerdiko ordubatean sari banaketa.

52ko KINTOAK

52ko kintoek bazkaria izango dute maiatzaren 25ean. Joan nahi duten guztiek Angel Dominguez, Luis Gutierrez, Paco Bonet, Julio Marañon eta Rafa Fernandezekin jarri beharko dira harremanetan maiatzaren 15a baino lehen.

JUBILATUEI OMENALDIA

Maiatzaren 25ean 65 urtetik gorakoei omenaldia egingo zaie. Hori dela eta maiatzaren 20ra arte egoitzetako bazkideek euren egoitzara hurbildu beharko dira bazkarira joateko txartelak hartzera. Bazkarira joateko asmorik ez dutenek ere jaso dezakete errifarako txartela. Txartela jasotzeko bazkideek egoitzako karneta aurkeztu beharko dute. Aurten SUDC elkarteak ez ditu txartelak emango.

13 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"12 monos" 7etan eta 9.30etan.
- **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**
Hegoa taldearen "Mundopolis" antzerkia Amaia antzokian eguerdiko 12.30etan. Ikasleentzat emanaldiak.

14 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"12 monos" 7etan eta 9.30etan.
- **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**
Hegoa taldearen "Mundopolis" antzerkia Amaia antzokian goizeko 9.30etan eta eguerdiko 12.30etan. Ikasleentzat emanaldiak.
- **HITZALDIA EKIN-ek ANTO-LATUTA**
Gaia: Eguzkia: laguna ala etsaia?. Arratsaldeko 6.30etan AEDko lokalean. Hizlaria: Arantxa Albisua estetizista.
- **BRIGADA INTERNAZIONALISTEN ELKARTASUN KANPAINA**

Arratsaldeko 7etan bridagak zer diren azaltzeko prentsaurrekoa Monterronen. Frantziaskotarren erakustokian "Elkartasunez aurrera begira" izenburupean erakusketak.

SAN JUAN JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Lehiaketa honetan Arrasaten bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Kartelen neurriak 50x70 zentimetro. Teknika librea. Karteletan 1996 San Juan Jaiak Arrasate textua jarri beharko du. Kartelak aurkezteko azken eguna maiatzaren 17a.

15 ASTEAZKENA

- **KULTUR ASTEA MUSAKO-LAKO ESKOLAN**
Goizeko 9.30etan jaialdia: euskal dantzak, ipuinak, abestiak, bertsoak.
- **BRIGADA INTERNAZIONALISTEN ELKARTASUN KANPAINA**
Kubari buruzko hitzaldia Monterronen arratsaldeko 7etan.

16 OSTEGUNA

- **ZINEKLUBA**
"Lamerika" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **KULTUR ASTEA MUSAKO-LAKO ESKOLAN**
Goizeko 9.30etan Auskalo taldea. 3etan Galtzagorriak txotxongiloa. 4.30etan eskulanen erakusketa eta 6etan gurasoendako hitzaldia.

AITA MENNIN ERAKUSKETA

Maiatzaren 10etik ekainaren 2a arte Aita Menniko gaixok egindako artelanen erakusketa Ospitaleko sarreran. Orduetgia: lanegunetan 5etatik 6.30ak arte. Larunbatetan 11etatik 1etara eta 5etatik 6.30etara.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Famili eta Gizarte Hezketarko Zentroaren eskulanen erakusketa Monterronen maiatzaren 21etik ekainaren 2ra arte. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

Nueva ZARAGOZAK heritarak

- Amaia Antzokian
- Maiatzaren 18an (larunbata)
- Gaueko 10.30etan.

Sarrerak: 500 pta. (Gazte-Txartelarekin, langabetuak eta AEDko bazkideak 300 pta.)

AEDko antzerki taldearen aurkezpena!

“Jakina denez bere osotasunean hartuta, ekonomia hazi egin da 1995. urtean, baina bi zati oso desberdin izan ditu, lehen sei hilabeteko gorantzako joeraren erritmoa asko gelditu da eta urtearen azken sei hilabeteetan.

PIBaren hazkundeak, inbertsioak lagunduta, ez du kontsumo pribatuaren bultzadarik izan, oinezkoek segurtasun handi barik begiratzan diote eta etorkizunari, pentsio publikoen sistemaren jarraipenaren inguruan dauden zalantzak eta langabezia tasaren igoeraren eraginez seguras-ki.

Ekonomiaren egoera honek korporazioari, ezarritako helburuak kuantitatiboki betetzea ekarri dio nolabait.

Dena den lanurtearen erdialdeko datuek helburuak hobeto beteko zirela adierazten zuten. Ezin izan dugu, eta ez bakarrik aipatutako ekonomiaren joeraren ondorioz, baizik eta Victorio Luzuriagan ezarritako plangintza garatzeko gaitasunik izan ez dugulako.

Urtearen balantze kualitatiboan kontuan hartzekoak dira eman diren aurrerapausuak, kalitate eta internalizazio arloan batez ere, ahaztu barik barne komunikazio eta giza errekurtsoen gestioan eman diren lehen pausuak”.

Antonio Cancelo, 1996ko apirila.

TU lankide

“Jendeak kaletik bereizten al du pertsonaia eta aktorea?

- Batzuk bereizten dute baina beste askok ez dute bereizten, uste dute zu zarela Ane benetan. Hori normala da, serie bat da eta egunero-egunero emanaldi bat ikusten dute. Etxe guztietan sartzen zara”.

Anuska Lasa, 1996ko apirila.

BIZARRA
Lepoan

Noiz merkaturatuko dituzue Deba Bailarako eskaintza turistikoak?

Momentu honetan eskaintzei gorputza ematen ari gara. Horretarako, bailarako zinegotzietan bilerak izan ditugu herri bakoitzetik zer ikus daitekeen jakiteko. Asmoa, Deba Garaia bisitatzea helburu izango duten bi aukera luzatzea da: bata aste-bukaerakoa eta bestea aste-beteko edo zubietarako. Beraz, orain astebukaerako bidaiari Deba Garaiko zein toki bisita daitezkeen finkatzen ari gara. Seguruenik astebukaerako bidaiari hiru aukera egongo dira, bi egunetan ezingo da bailara osoa ikusi eta. Aste osokoa, berriz, bailaraz gain Euskal Herriko beste txoko batzuk ere ezagutuko dira.



Jaione Uriarte
Turlan-eko teknikaria

Espero dugu eskaintza turistikoak ekainerako gertu izango ditugula eta ondoren maioristen agentzietan harremanetan jarriko gara horiei auzeteko. Horrez gain, Jaurlaritzaren Turismo Sailak antolatzen dituen ferietara ere joango gara.

Deba Bailarak gehienbat errekurtso kulturalak ditu, horregatik, gehienbat jende nagusia etorriko dela uste dugu. Hala ere, aurrera begira baliteke eskaintzak indartu eta jende gazteagoa ere hurbiltzen hastea. Bestalde, jendea etorriko dela uste dugu, orain behintzat bere kontura hurbiltzen denik bada eta. Oraindik, hala ere, goiz da eskaintzen erantzuna zelakoa izango den jakiteko.

Eskaintza turistikoak garatzeko ardura, orain dela gutxi adjudikatu zion Turlan kooperatibari Deba Garaiko Mankomunitateak. Turlanen bulegoa orain dela hiru urte zabaldu zen Oñatin, bisitariari Oñati erakusteko asmoz.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Sampedro aske

Ostegun eguerdian aske utzi zuten Roberto Sampedro, HBko prentsa ardura-duna, Azpeitiko epaitegian deklaratu ondoren. Sampedrok salaketa jartzeko asmoa azaldu zuen, Ertzantza gaueko 11.30etan joan zitzaizkion etxera atxilotzeko aginduz.

Gaztetxeak V. urteurrena ospatu

Joan den astebukaeran bostgarren urteurrena ospatu zuen Gaztetxeak. Ostiralean, Doctor Deseo taldeak kontzertua eman zuen eta jende ugari hurbildu zen emanaldira. Zapatuan, berriz, bazkaria egin zen Gaztetxean bertan.

%0,7aren alde

Urtero moduan %0,7aren aldeko bizikleta marxa egin zen domekan Harremanek antolatuta. Erdialdeko kaleetatik, aurrekontuen %0,7a hirugarren mundurako zuzentzea eskatu zuten partehartzaileek. Antolatzailen esanetan 40

**Lehendakaria Arrasaten**

Jose Antonio Ardanza lehendakaria Arrasaten izan zen joan den ostiralean. MCCren zuzendaritzan aldaketak egon direla eta, Korporazioko lehendakari berria eta beste arduradun batzuk aurrez-aurre ezagutzeko etorri zen lehendakaria. Horrez gain, Fagor Elektratrresnak ere bisitatu zuen. Lehendakaria Xabier Retegirekin, Industria Sailburuarekin batera etorri zen, MCCk eta Industria sailak maiatzaren bukaeran sinatuko duten hitzarmenari buruz hitzegiteko. Hitzarmen horretan jasotzen denez, Jaurlaritzak laguntza emango dio Korporazioari 80.000 miloi inbertitu eta 3.000 lanpostu berri sortuz.

lagunek parte hartu zuten, iaz baino lagun gehiagok.

Estradizioen aurkako manifestazioa

Antolatzailen esanetan, 1.000 lagunek parte hartu zuten zapatuan Gestorak

deitutako manifestazioan. "Euskal presoak Euskal Herrira estradiziorik ez" lelopean egin zen manifestazioa Seberon hasi, eta San Andreseara abiatu zen ondoren. Ekitaldiaren hasieran, komunikabideen jarrera salatu eta estradizio-

en kontra mobilizatzea eskatu zuten.

Ikasleendako dantza emanaldia

Gazteengan dantza zaletasuna indartu asmoz, asteartean Ananda Dansa konpainiak "Izotzeko poloa" obra eskaini zien Arrasateko ikasleei. Gipuzkoako Diputazioaren eskutik, Maiatza Dantzan egitaraua hasi dela eta izan zen dantza emanaldia.

JAIOTZAK

- Laura Herrero Barreno. Apirilaren 23an.
- Itziar Moreno Gómez. 25ean.
- Itxaso Garai San Vicente. Maiatzaren 2an.
- Sonia Alonso Rey. Maiatzaren 2an.

EZKONTZAK

- Josu Aspe Barrutia eta Maria del Mar Cobos Duran. Elizatik. Maiatzaren 4ean.

HILDAKOAK

- Gabino Heriz Telleria. Apirilaren 29an. 62 urte.
- Mariano Arkauz Eraña. 30ean. 86 urte.
- Maria del Socorro Irebekanpos Arrieta. Maiatzaren 1ean. 79 urte.




**DEGABEHIBA
SURADESA**

**Etxeko berritze-lanen eta erosketen dirulaguntzen gestioa.
Dohaneko zerbitzua.**

Publikorako ordutegia:
Astearte eta ostiraletan, 9etatik 13etara.

Arrasate Pasealekua, 5-behea (Mankomunitate barruan, San Viator parean).



* Juan Luis Esperesate

Gastu militarra: kontu txarra

Euskal Herrian gero eta gehiago gara eragozpen fiskala egiten dugunok. Era berean eragotzitako diru kopurua gorantz doa.

Honez gain, hauxe garrantzitsuena, gastu militarri eta daraman zarrastelkeriari egindako kritikak gero eta zabalagoak dira. Eragozpen Fiskala hedatuz doa. Hedaketa honen zergatia hau xe da: gizartea barru barrutik eraberritzeko tresna eragin-korra delako.

Giza zerbitzuetan egin diren murriztapenak, enplegua sortzeko inbertsio eza, soldaten izozketa, eta herriari egindako hainbat eta hainbat eraso ikusita, zaila da ulertzera sindikatuek zarrastelkeria militarren desagerpena ez eskatzea. Dirua, egon bada-goa, erabiltzeko eran dago koska.

Guzti hau gertatzen den bitartean, gero eta gehiago izango garelakoan gaude.

Aurten ere 5.000 pezetako eragozpena egiteko proposamena plazaratzen dugu. Diru kopuru hau Kuota Likidotik kenduko dugu, proiektu alternatibo batean sartzeko. Aldi berean Foru Ogasunari diru hori erreklamatu diogu.

Nola egin dezaket eragozpen fiskala?

Oso erraza da. Errenta Aitorpenaren inprimakiak betiko moduan beteko dituzu, baina kenkariak (seme-alabak, gaixotasunak direla eta...) izeneko atalera hel-tzean honako hau idatzi behar

.....

“Eragozpen Fiskala hedatuz doa. Hedaketa honen zergatia hau xe da: gizartea barru barrutik eraberritzeko tresna eraginkorra delako”

duzu: “Eragozpen Fiskala Gastu Militarrei” eta eragotzitako diruaren zenbatekoa 5.000 pezetakoa egiteko proposamena egiten dugu. Hor-tik aurrera, aitorpena betiko moduan beteko duzu. Aitorpena eman baino lehenago sartu behar dituzu 5.000 pezeta horiek zuk aukeratu duzun proiektu alternatiboan eta bankuko egiaztagiria aitorpenaren gainerako paperekin bate-ra sartuko duzu. Honela egin behar da, berdin da aitorpena ordaintzeko ala itzultzeko izan. Gero ondoan duzun eskutiz honen bidez Foru Ogasuneko diputatuari egin duzuna azalduko diozu.

Aitorpena eginda badaukazu edo ordenagailuaren bidez egin nahi baduzu eta bulegotan ez badizute onartu nahi, sar ezazu gero dirua bankuan eta Ogasunera eskutiz-instantzia bidali eragoz-le fiskala zarela esanez, eta horregatik diru hori desbideratu duzula eta bankuan sartu duzulako egiaztagiria bidaltzen diezula eta beraz Ogasunak zure aitorpena aldatu behar duela diru hori dagoeneko sartuta daukazulako.

Dena den, edozein modutan eginda ere, idatziezazu, zure datuak, eragotzitako dirua eta aukeratutako proiektua adieraziz, daukagun indarraren berri izateko.

Euskal Herriko Eragozpen Fiskaleko Batzarrak
557 posta kutxatila
48080 Bilbo

* ARRASATEKO TALDE
ANTIMILITARISTA

USTEAK USTE

ASMO HUTSETAN

Komunikabide dinamiko, orekatu, integratzaile, interesgarri, zabal eta partehar-tzaileak egiteko ahale-ginetan gabilta egune-ro. AIB eta Arrasate Press arrasatearren zerbitzura eta arrasate-arrenak izatea da gure helburuetariko bat, guztionak beraz. Ideia horien inguruan egiten dugu lan, ilusioz, eta horrela planteatzen ditugu era guztietako gaiak eta egitasmoak: denborapasarako batzuk, pil-pilean egon daitezkeenak, herriaren historia egiteko balio dutenak, interes bere-zia sor dezaketena...

Hori guztia pentsatu-ta batek mahainguru sorta bat antolatzen du. Gaia: Euskal Herriko gatazka. Interesgarria duda barik, han eta hemen ia ez da beste ezertaz hitzegin eta idazten eta. Itxuraz guztiek daukate zer esana horren inguruan, elkarrizketaren kultura garatuta ei dago. Errealitateak, baina, beste zerbait erakusten du. Herriko hainbat talde gonbidatu eta baiezkua eman duten bakarrak, HB, Amnistiaren Aldeko Gestora, Senideak, Jarrai, EGI, IU-EBa, eta Elkarri. Hirukoaren partaidetzarik ez dagoenez, mahainguruak, pikutara. Ezinagatik balitz gaitz erdi, baina borondate ezari sines-garrtasun handiagoo emango nioke nik neuk. Tristeia, ez zait beste adjetiborik bururatzen.

BEÑARDO KORTABARRIA

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



Proiektua aurkeztu zuten ekimenaren bultzatzaileek asteazkenean.

Aurkeztuta "Mondragón Unibertsitatea" proiektua

Asteazkenean ofizialki aurkeztu zuten "Mondragón Unibertsitatea" izeneko proiektua bere sortzaileek: Eskola Politeknikoak, Oñatiko Enpresa Eskolak eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak. Era horretan, Mondragón Unibertsitateak (M.U) autonomia osoa izango du eta Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitua egoteari utziko dio, titulo propioak eskainiz.

Proiektua garatuta, orain Eusko Legebiltzarraren baiezkua eta Unibertsitateen Kontseilu Gorenaren txosten teknikoak baino ez dira falta. Prentsaurrekoan azaldu zuten, alderdiekin bilerak izan dituzte eta proiektua begi onez ikusi dute. Baieztapen horiek 97aren bukaerarako eskuratuko dituzte, eta era horretan, Arrasatekoa izango da estatuan kooperatiba batek bultzatutako lehenengo unibertsitate pribatua.

Gaur egun indarrean dituzten titulazioez gain, M.U.k beste bost titulazio berri eskainiko ditu, guztiak ere enpresen beharrei eran-

tzuteko pentsatuak. Teknologia eta enpresa zientzien arloko ikasketez gain, giza-baliabideetan lizentziatura eskainiko du Irakasle Eskolak 97-98 ikasturteetik aurrera. Jesus Garmendiak, Irakasle Eskolako Zuzendariak esan zuenez, esperantza handia dute ikasketak horriengan.

M. U.a irabazirik asmorik gabekoa, kooperatiba inspiraziokoa eta enpresa arloari lotutako unibertsitatea izango da. Masifikazioa uxatu nahiez gainera, datozen bost urtetan unibertsitateak ez ditu 3.000 ikasle baino gehiago izango (gaur egun 1.800 ditu). Sortzaileek asteazkenean azaldutakoaren arabera, gaur egun dituzten baliabideak nahikoa direnez, ez dute aurreikusten eraikinak handitzea edo inbertsioak egitea.

Aurkezpen ofizialean On Jose Maria Arizmendiarieta izan zuten gogoan, eta horren asmoa unibertsitatea eratzea zela azpimarratu zuten. Arizmendiarietak, gainera, unibertsitatea lehenago eratuko lukeela esan zuten.

Roneo porrot egoeran

Apirilaren bukaeran jarraipen kiebra egoera aurkeztu zuen Roneo Ucem-ek Bergarako epaitegian, eta astelehenean lantegiaren porrota onartu zuen Bergarako epaitegiak. Roneo Ucem-ek ezin die aurre egin aurreko urteetatik pilotatu dituen zorrei. Batez ere haziendarekin, segurtasun sozialarekin, banketxeekin eta Arrasateko Udalarekin dago zorretan. Zorrak handiak izan arren, hala ere, enpresa eta salmenta bide onetik doaz, eta horregatik, epaileak porrota onartu du. Beraz, langileek lanean jarraituko dute eta Roneo Ucem-ek negoziatu egingo du zorrean dagoenekin. Porrotaren helburua, lanpostu guztiei eustea eta lantegia ez istea dira.

Bestalde, dagoeneko egin da dago Roneoren bideragarritasun plana. Plana datozen bost urteei begira egin dute, eta bertan aurreikusten denez, helburua 2.000garren urtean Roneok 2.000 milioiko lanpostuak izatea da. Gaur egun, berriz, 1.397 milioiko salmentak ditu. Planean, gainera, 33 lanpostu soberan daukela aipatzen da, eta asmoa jubilazioen bidez lanpostu horiek murriztea da. Roneo Ucem-en 133 langile ari dira lanean, eta Roneoko komertzial sailean 34.

Galerak handiak zirela eta, orain dela hilabete batzuk langileen esku utzi zuen lantegia UCEM korporazioak.

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Ffnoa: 791814
Fax: 792911



Egoitzaren gaiak jende ugari bildu zuen Uribarriko asanbladan.

Uribarriko jubilatuek presioa egiteko prest

Uribarriko jubilatuek aurrekontuei buruzko plenora joatea erabaki zuten asteazken arratsaldean egin zuten asanbladan. Aipatutako plenoan euredako lokal berria egiteko dirutzarik gordeko ez balitz, Uribarriko jubilatuek elkarterko zuzendaritza batzorde osoak dimisioa aurkeztuko luke. "Etsita gaude geure helburua lortu ez dugulako eta horregatik dimisioa aurkeztuko asmoa daukagu" esan zuen Antton Garatek, Uribarriko jubilatuek etxeko gaur egungo presidentearak.

Egin diren ikerketen arabera, Uribarriko jubilatuek etxeak ez du horrelako lokal batek

bete behar dituen gutxieneko baldintzak betetzen, ez segurtasunari dagokienak eta ezta higienari dagokienak ere. Egoera horri irtenbidea emateko, Udaleko gobernu taldeak egindako aurrekontuan bazegoen 30 milioiko kopurua Larreako etxabehean Uribarriko jubilatuek lokal berria egiteko, baina ez EAJ-PNV, EA, eta PSE-EEK aurkeztutako asmoan.

Uribarriko jubilatuen ustez, baldintzak betetzen ez dituzenez eta zentzu horretan legalitate barruan ez dagoenez, Udalak itxi egin beharko luke euren lokala eta berria egin. 80 lagun inguru bildu ziren asanbladan.

Nortasun agiria

Arrasateko Udala harremanetan ari da Donostiako dokumentazio departamentuarekin, nortasun agiriak edo karnetak berritzera herri-eror daitezzen. Oraingoz, hala ere, ez dakite noiz etorriko diren agiriak berritzera, baina zerbait jakin bezain laster horren berri emango dutela adierazi dute Udaletxetik.

Azkenaldian hainbat arrasatear hurbildu da Udaletxera, nortasun agiria edo karneta berritzeko asmo. Horregatik, momentuz lasai egoeteko eskatu dute Udaletxetik.

Eskola Politeknikoan kontzentrazioak

Presoen Euskal Herriratzeara eskatzeko, asteazkenean hamabost minutuko kontzentrazioa egin zuten Eskola Politeknikoko ikasle batzuk. Deialdia egin zutenen arabera 70 ikasle hurbildu ziren kontzentrazioa. Asteazkenean, eguerdiko ordu batean, kontzentrazioak egiteko asmoa dagoenez, horietan parte hartzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Zentru psikogeriatrikoa Diputazioaren erabakiaren zain oraindik

Gipuzkoako Diputazioak ez du argitu oraindik dirua emango ote duen Deba Garaiko Arrasaten egin nahi den zentru psikogeriatrikoa antolatzeko.

Deba Garaiko Udaletako ordezkariak proiektua Diputazioari aurkeztean, Gipuzkoako Diputazioak garbi utzi zuen psikogeriatrikoa Donostialdean eratzeko asmoa zenez hemen ez zuela inbertsiorik egingo. Proiektuan, hala ere, Arrasateko Udalak zentzurako lokala utziko duela, Aita Mennik asistentzia teknikoa emango duela eta Udalek diruaz parte hartuko dutela jasotzen denez, inbertsiorik ez baina dirulaguntza ematea eskatu zioten Diputazioari.



Zentrua buruko gaixotasunen duten nagusiendako izango litzateke.

Joseba Ugalde, Gizarte Zerbitzuen ardura daraman zinegotziaren esanetan, "Foru Aldundiaren laguntza barik, ia ezinezkoa izango da zentrua antolatzea. Proiektuan

jasota dagoenez, egunero 5.400 pezetako kostua izango luke zentruko gaixo bakoitzak, eta kopuru horri ezin diegu udalek eta familiek baka- rrik aurre egin".

Zentru psikogeriatrikoaren proiektuarekin ados azaldu dira Deba Garaiko azal guztiak, baina Bergarakoak herrian jarri nahi du zentrua. Bergarakoak, hala ere, 18 gaixorendako izango litzateke eta Arrasatekoa 30endako. Kopuru horretatik, 9 gaixo izango lirateke Arrasatekoak eta besteak Deba Garaiko gaintzeko herrietakoak.


Zentru psikogeriatrikoa buruko gaisotasunen bat duten pertsona nagusiendako izango litzateke, adibidez, Alzheimerrean dutenendako. Zentrua antolatzeko asmoa Aita Menni ospitalean garatu duteenez, baliteke Diputazioak lagutarik ez emanda ere Aita Mennik bere kontura zentrua antolatzea.




Miguel ALTUNA
INSTITUTUA

Ibargarai, 1
Tfnoa: (943) 76 24 91
BERGARA

III. MAILAKO MODULUAK



ERDI MAILAKO ZIKLOA



AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 2tik 17ra

MATRIKULAK
Uztailaren 1etik 8ra



Lolo Sainz Estatuko saskibalo selekzionatzailea eta Gustavo Arenzana 23 urte azpiko selekzionatzailea Arrasaten izan ziren. Urbina Maltzagak Pamesa Valencia taldearen kontra jokatu zuen partidua ikustera etorri ziren eta Arrasateko saskibalo ordezkariak ez zuten aukera galdu, Lolo Sainz maisuarekin argazkia ateratzeko. Horrelako bisitak gustora hartzen dira, bai horixe!



Umezaintzako 5-6 urteko 37 neska-mutiko Gernikako Muruetagane auzoan dagoen "Baratze" baserrian egon

ziren hiru egunetan. Urtero egiten duten ekintza izan arren, zoragarri pasatzen dutela jakin izan dugu.




"Sanvi(H)ator Euskaraz Jazten" lemapean, San Viator ikastola euskal kulturaren teilaturaino igo zen apirilaren 22tik 26ra tartean. Egun horietan makinatxo bat ekintza burutu zuten giro apartan. Esperientzia polita izan zelako hurrengo ikasurteko kultur astea noiz etorriko zain daude ikasleak!

LENIZ ALUMINIOAK


Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea



~~109.000 pta.~~
~~101.000 pta.~~

Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!



P.V.C.an udaberriko beherapen bereziak!

Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~
~~76.000 pta.~~

Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketak eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu



Karlos eta **Maite**k ospital komarkalean bost urtetan bertako jatetxe eta tabernaren arduraz izan ondoren, utzi egin dute lana. Apirilaren 30ean luntx berezia antolatu zuten euren agurra egiteko eta ospitaleko langileen arte-

an aurpegi tristeak ikusi zirela esan behar. Izan ere, igaro duten urteetan harreman estuak izan dituzte mediku erizain eta langileekin. Orain bikotea beste lanbide batean hasiko da beraz beraiei zorte onena!



Corazon de Encinak elkarteko erregina eta ohorezko damak aukeratu zituen zapatuan. Eguerdiko 12.30etan hasi zen ekintzan bi dama eta erregina aukeratu ziren. Aurten go erregina Santi Tena da. Ohorezko damak berriz, Desiré Chimarro eta Marce Hidalgo. Zorionak hirurei!

IZEN PROPIOAK

● Arrasateko EAJ-PNVeko junta aldatu egin da eta lagun hauek osatzen dute batzar berria: presidentea **Agustin Ugarte**, presidenteorde **Marisa Larrañaga**; idazkaria **Luis Maria Apraiz**; bokalak **Jose Ramon Okina, Rafael Garai, Sara Sagasta, Rafael Maraion** eta **Karmelo Herrarte**.

● Euskarazko prentsa idatziari buruzko ihardunaldiak egingo dira Donostiako Miramon Jauregian maiatzaren 31ean eta ekainaren 1ean. **Jon Sarasua** kazetari eta bertsolari atxabaltarrak ponentzia bat aurkeztuko du bertan. Gaia: "Euskal prentsa idatziaren diagnostikoa". Maiatzaren 31an aurkeztuko du.

● **Pello Urizar** 28 urte arrasatearra Gazte abertzaleko idazkari berria da 2 urtetarako.

Pello EAKo zinegotzia da Arrasateko Udalean eta Arrasate Zerbitzuak enpresan egiten du lan.

HITZALDIA: Eguzkia hartzearen alde on eta txarrak

HIZLARIA: Arantxa Albisua (Estetizista)

Maiatzak 14 (asteartea), arratsaldeko 6.30etan • AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4 behe)

ANTOLATZAILEA:



Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



LORAMENDI

San Andres eta Garibaien

Zure aisialdia jazteko
behar duzun arroparik
berriena.



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**




Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hirugarren Faseko 3. ihardunaldia.*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Protagonistak: Andoni Zurbano eta Aritz Fernandez*

Hirugarren fasea bukatze-ar dago eta

aurrera egiteko asmoa duten taldeek azken ihardunaldian erakutsi beharko dute zer egiteko gauza diren final laurdenetara heltzeko. Aurten beste urte batzutan ez bezala, parekotasuna da nagusi. Une honetan bi taldek lortu dute hurrengo faseko txartela. A multzoko Argi Ibili eta Eko Cerveceria Leintzek, beste sei postuak oraindik kolokan daude.



ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atearak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



Pavimentos AGR EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	2	2	0	0	11	3	4
Arrasate Kirolak	2	1	1	0	12	9	3
Betrayer	2	0	1	1	5	10	1
AC Surcos	2	0	0	2	7	13	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Okoretegi Taberna	2	1	1	0	8	3	3
Fosforos	2	1	1	0	8	5	3
Irati STS	2	1	0	1	9	5	2
Insert Coin	2	0	0	2	2	14	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	2	1	1	0	6	3	3
Trikiti	2	1	1	0	3	2	3
Kamasutra	2	1	0	1	7	6	2
Sokoakoak	2	0	0	2	6	11	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Cerveceria Leintz	2	2	0	0	18	4	4
Totem	2	1	1	0	8	4	3
Pub People	2	0	1	1	6	13	1
Perrahotsa	2	0	0	2	2	13	0

Emaitzak

A Taldea

Argi Ibili 6 - Betrayer 1
AC Surcos 5 - Arrasate Kirolak 8

B Taldea

Fosforos 3 - Okoretegi Taberna 3
Insert Coin 0 - Irati STS 9

D Taldea

Adelaida Haizea 5 - Sokoakoak 2
Trikiti 2 - Kamasutra 1

E Taldea

Totem 3 - Pun People 3
Perrahotsa 1 - Cerveceria Leintz 8

Hurrengo partiduak

Larunbata 11

Zaldibar

10.50 Trikiti - Sokoakoak
12.00 AC Surcos - Betrayer

16.00 Insert Coin - Okoretegi taberna
17.00 Argi Ibili - Arrasate Kirolak
18.00 Totem - Cerveceria Leintz

Igandea 12

Zaldibar

9.50 Pub People - Perrahotsa
11.00 Adelaida Haizea - Kamasutra
12.00 Fosforos - Irati STS

Labur

A ZELAKO IHARDUNALDIA!

Asteburuan jokatuko diren neurketak interresgarri eta erabakiorrak izango dira. Talde askoren etorkizuna lortzen duten emaitzetan egongo da. Hala ere, partidu biziena Irati STS eta Fosforosek domekan eguerdiko 12etan jokatuko dutena dirudi. Bi faborito aurrez aurre eta postu bakarra jokuan.


Txapelketa inoiz baino beroago

Hirugarren fasea bukatzeko ihardunaldi bakarra falta denean dagoeneko final laurdenekin pentsatzen hasteko ordua da. Final laurdenetan lau partidu jokatuko dira eta talde irabazleek final erdiak jokatuko dituzte. Horren ondoren ekainaren batean final handia jokatuko da.

Jokatzen ari den faseari dagokionez A multzoan Argi ibili sailkatuta, Arrasate kirolak eta Betrayerren artean egongo da bigarren postua. Bn Okoretegi taberna matematikoki hurrengo fasean ez badago ere aukera guztiak ditu. Beste taldea Fosforos eta Irati

STSren artean erabaki beharko da. Hauek elkarren kontra jokatu behar dute eta irabazten duenak aurrera egingo du. Dn gauzak oso bero daude, oraindik ez dago ezer erabakita. Adelaida Haizea, Kamasutra eta Trikitik azken partiduan erabakiko dute euren etorkizuna. Azken multzoan Cerveceria Leintzek lortu du final laurdenetara heltzea. Lehia beraz, Totem eta Pub Peopleren artean egongo da. Bestalde Zaldibarren beste lesionatu bat dagoela esan behar, Arrasate Kirolak taldeko Caberok zartada galanta hartu zuen zapatuan eta honendako bukatu da txapelketa.

Kanporaketa Sistema



Berriro betiko tokian gaude, zator eta instalazio berriak ikusi!

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

J. Carlos Guerra, 1 ARRASATE • Tfnoa: 79 29 95

**J. Larrañaga Optikak
PACK GAZTE**

berria eskaintzen dizu:

- 6 hilebeterako kontaktu-lente erabili eta botatzekoak.
- 355 ml.ko Renu soluzio bakarreko 2 pote.
- Lenteak gordetzekoak.

17.000 pta.



Opari eksklusiboa
**SUPER
POLTSA
OLINPIKOA**

Protagonista

Aritz Fernandez
(Kamasutra)


— **Trikiritren kontra larri larri ibili zarete?**

— Partidua garrantzitsua zen eta irabazi beharrekoa txapelketan aurrera egiteko. Azkenean 1 eta 2 galdu dugu. Orain 2 puntu ditugu eta azken ihardunaldia guztiz erabakiorra izango da guretzat. Adelaida Haizearen kontra nahi eta nahiez irabazi behar dugu datorren domekan.

— **Ilusioarekin hurrengo fasera pasatzeko?**

— Ilusioa ez da inoiz galitzen. Jakin badakigu zaila dugula baina azken partiduen zain izango gara eta dugun onena emateko gertu gaude. Ea ba, horrela aurrera egitea lortzen dugun.

— **Txapelketan dauden taldeetatik zein duzu kami-**



seta gogokoena?

— Irati STSkoen kamisetak asko gustatzen zait eta baita Arrasate Kirolak taldeko atezainarena ere.

— **Txapelketako jokalaririk onena?**

— Jokalari trebe asko dago txapelketan baina bereziki gure taldeko Monillo jokalaria aipatuko nuke. Oso teknikoa eta listoa da baloia-ekin.

— **Lesio larririk izan duzu?**

— Ez sekula. Ni atezaina naiz eta kolpeak hartu ditut, lesio larririk berriz, inoiz.

— **Partidu bezperan juerga gutxiago egiten duzu?**

— Egia esateko juerga berdina egiten dut.

— **Gauza berezirik jaten duzu jokatu baino lehen?**

— Normal jaten dut, ez dut dieta berezirik egiten. Partiduak goizez direnean betiko armosua hartzen dut eta bazkalostean oso aguro bada, lehenago jaten saiatzen naiz.

— **Zenbat urte txapelketan parte hartzen?**

— Iaz hasi nintzen, aurtengo bigarren urtea da. Oso esperientzia polita izan dela esan behar dut, gainera aurtengo talde hobea dugu eta

horrek beste animo bat ematen du.

— **Jarraitzen dituzu txapelketako emaitzak?**

— Bai Arrasate Press eta Mondrasport saioan jarraitzen ditut.

— **Gogoratzen duzun partidua gogorrena?**

— Txeyenexen kontra jokatu genuen partidua gogor eta iskanbilatsua. Azkenean antolatzaileek Txeyenex txapelketatik kanpo utzi zuten erakutsitako jarreragatik. Neurketa hori izan da guretzat gogorrena.

— **Horrelako iskanbilak sortzea ez da gehiegizkoa?**

— Hona ondo pasatzera zator. Bestalde egia da txapelketa bat dela eta guztion helburua ahalik eta urrutien heltzea dela. Baina hortik jotzera aldea dago.

Protagonista

Andoni Zurbano
(Epailea)

— **Zenbat denbora txapelketan epaitzen?**

— Lau bat urte daramatzat eta oso esperientzia ona iruditu zait. Batzutan gehiegi berotzen da jendea eta horrek arazoak ekartzen ditu. Dena dela egoera kontrolatuz gero, ez da hain gogorra epaitzea.

— **Aurten zer moduz doa txapelketa?**

— Oso ondo. Gainera beste urte batzutan sasoi honetarako talde faboritoak berehala igartzen dira. Aurten berriz, parekotasuna da nagusi eta oraindik txapelketa oso zabalik dago. Taldeen artean ez dago alde handirik eta

denetarik gerta daiteke partidu hauetan.

— **Gustoren epaitu duzun partidua?**


— Ez dut arazo gehiegi izan eta denak epaitu ditut gustura.

— **Epaitzean gozatzen da?**

— Baietz esango nuke. Nik ederto pasatzen dut. Ez da ahaztu behar, epaile lanetan gabiltzanok antolatzaileei mesede bat egiteko eta aldi berean lan hori asko gustatzen zaigulako ari gara.

— **Talde polemiko eta lasai bat?**

— Polemikoa edo gogorra Fosforos da. Jokatzeko era berezia du baina ez da ahaz-



tu behar benetan futbol polita erakusten duela. Garbiena, ez duelako arazorik ematen Argi Ibili.

— **Kalean jendearekin izan duzu arazorik?**

— Orain dela urte batzuk Aizkorarekin sartu ziren eta

polemika egon zen. Nirekin ez dira inoiz sartu. Partidu ostean ez bazaie zure lana gustatu beti esaten dizute zerbait baina gero lagunak gara.

— **Txapelketako atezain onena?**

— Ni neu, Resakaseko atezaina naiz eta. Nitaz aparte, Fosforos taldeko Menoti egun ona duenean primeran ibiltzen da; txarrarekin Buyo bezalakoa da, kantada mordoa egiten du.

— **Anekdotarik?**

— Gaur bertan. Epaitzeko txistua etxean utzi dut eta lagun batek utzi dit. Ez dakit barraketan irabazitako txistua den edo zer, baina kontua da benetan txarto jotzen duela.

Uribe Auzoko Futbito Txapelketa

A taldea

Kamasutra P 1 - Zutarri 8
Killer Barbies 5 - Creature Feature 9
The Barrio 3 - Patxi eta Txapi 9
Hirei 3 - Zipote Nukleiko 3
La Mosca Gao 14 - Pasteleria Papur 2
Los Urracas 6 - Egocentricos 3

B taldea

Manchester Fumaited 2 - Ale Alee 4
Nuevo Taberna 1 - Kamasutra 0
Decima Victima 4 - Elisabeth 2
Amo Katxis 4 - Rayo Vaticano 0
Arrasate Zoo 0 - Pobres Rangers 1
Ganba al whisky 3 - Eight 5

D taldea

Gallinero 2 - Power Rangers 5
Diego Antonio 2 - Jaleo Bila 0
Tandem 8 - Zurt 4
Bortxitxak 6 - Betrayer 7
Zigarr Mutilzah 7 - Cartonajes Igamo 0
Borrock Roll P 13 - Mikel Lasa Seg 5

E taldeak

Koka Juniors 0 - Euskal supporters 1
Racing Molotov 2 - Joseba Kont 0
Borrock Roll 0 - Balon Rojo 1
pier Nodoiuna 3 - Ganbelas 2
Nahiz ta gure 0 - Higt Society 1
Beluga 15 - Blind 2

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Larunbata 11

Iturripe A

10.00 Arsenal DHD - Leya
11.00 Bortxitxak - Cartonajes Igamo
12.00 Zutarri - Egocentricos
13.00 Gallinero - Jaleo Bila
14.00 Kamasutra Prom - Creature Feature
15.00 L Tropikana - Malpikas
16.00 Killer Barbies - Patxi eta Txapi
17.00 Tandem - Betrayer
18.00 Potrosorri - Munar txiki
19.00 Racing Molotov - Balon Rojo

Iturripe B

12.00 Zigarr Mutilzah - Borrock Roll Prem
13.00 The Barrio - Zipote Nukleiko
14.00 Cheer Readers - Interlaken

15.00 Arrasate Zoo - Ganba al whisky
16.00 Lautherbrun - Uglys txinato
17.00 Ale Alee - Eight
18.00 Dribling - Baneuko
19.00 Hirei - Pasteleria Papur

Igandea 12

Iturripe A

10.00 Euskal Supporters - Blind
11.00 Decima victima - Rayo Vaticano
12.00 Diego Antonio - Zurt
13.00 Pier Nodoiuna - high Society

Iturripe B

10.00 Nuevo taberna - Elisabeth
11.00 Power Rangers - mikel Lasa Segu
12.00 La mosca Gao - Los Urracas
13.00 Amo Katxis - Pobres Rangers

Uribe auzoko sailkapena

A taldea

Zutarri13
Hirei11
Patxi ta Txapi11
The Barrio10
Los Urracas10
La mosca Gao9
Kamasutra Prom8
Creature Feature6
Killer Barbies6
Egocentricos5
Zipote Nukleiko5
Pasteleria Papur0

B taldea

Eight14
Nuevo Taberna14
Pobres Rangers14
Decima Victima12
Elisabeth8
Arrasate Zoo8
Amo Katxis8
Ale Alee6
Ganba Al whisky5
Kamasutra4
Rayo Vaticano2
Manchester Fumaited ..1

D taldea

Diego Antonio13
Betrayer12
Bortxitxak11
Zigarrolako Mutilzah ..11
Jaleo Bila9
Cartonajes Igamo9
Power Rangers9
Borrock Roll Prom8
Gallinero6
Tadem5
Zurt2
Mikel Lasa Seg1

E taldea

Racing Molotov14
Balon Rojo14
Beluga11
Joseba kont11
Ganbelas10
Euskal supporters7
Koka Juniors6
Nahiz eta gure6
High Society5
Blind4
Borrock Roll 4
Pier Nodoiuna2

F taldea

Uglys txinato16
Dribling14
Malpikas12
Munar txiki10
I Tropikana9
Leya8
Potrosorri8
Lautherbrun7
Baneuko6
Cheer Readers2
Interlaken2
Arsenal DHD2

Nesken Futbito Txapelketa

Emaitzak

Jo ta Akabau 0 - Ekin Gogor 0
Joixon Bertan 0 - Zeppaesstandon 4
Abstine Subtine 0 - Jo ta bertan gol 1

• Izenbakuak-Shaktale atzeratu egin da.

Hurrengo partiduak

10.00 Izenbakuak - Zeppaesstandon
11.00 Shaktale - jo ta Bertan gol
12.00 Abstine Subtine - Ekin Gogor
13.00 jo ta Akabau - Joixon Bertan

Sailkapena:

Zeppaesstandon12 puntu
Izenbakuak10
Shaktale8
Jo ta bertan gol6
Joixon Bertan5
Ekin Gogor1
Jo ta Akabau1
Abstine Subtine-1

XABIER RETEGI. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailburua.

“Krisiari adarretatik heltzen badiogu aurrera egingo dugu”


Maria Agirre

Bergaran jaio arren, Xabier Retegi arrasatearra dela esan daiteke.

Eskola Politeknikoan ikasitakoa, ezkondu bezain laster Arrasatera etorri zen bizi izatera. Lehenengo pausuak hezkuntzan eman zituen: Eskola Politeknikoko zuzendaria, ondoren Hezibidekoa eta jarraian, Hezkuntza Saileko sailburuordea. Ostean, Euskadiko Kutzara etorri zen lanera eta LKSkoko zuzendaria ere izan zen. Azkenik politika mundura eman zuen jautzia: SPRIko zuzendari orokorra, industriako sailburu ordea eta orain Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburua.

- Hemen bizi izandako esperientzia kooperatiboak balio izan dizu ondoren bete dituzun karguetarako?

- Duda barik. Ikasle nintzela eta ondoren Eskolako zuzendaria, hartueman handia izan nuen Jose Maria Arizmendiarekin eta berak gauza asko irakatsi zidan. Kooperatiben inguruan hezitakoa naiz eta hemen ikasi dut



Xabier Retegiren esanetan, Arrasaten bizi izandako esperientzia kooperatiboak asko balio izan dio.

dakidana. On Jose Mariak gizartearen onerako lan egin behar dela erakutsi zigun, eta nik gizarterako lanean jarraitzen dut.

- Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburua zara. Hiruretatik zeinek ematen dizu lan handiena?

- Hirurek. Gertatzen dena da industria oso alor zabala dela eta Euskadirendako, gainera, oso garrantzitsua. Nekazaritzak aberastasun aldetik garrantzi txikiagoa du, baina gizartearen orekarako ezinbestekoa da. Euskadik ezin du industria alorra bakarrik garatu, nekazaritza ere kontuan izan behar da. Arrantza berriz, egoera txarrean dago nahiz eta azkenaldian apur bat onera egin duen. Itsasoko aberastasuna gutxituz doa eta teknologiak aurrera egiten duen heinean, gero eta lanpostu gutxiago behar dira.

**- Daewook Gasteiz auke-
ratzea, orain arte izan duzun
arrakasta handiena izan da?**

- Ez dut uste. Gertatu dena da komunikabideek oihartzun handia eman diotela horri, baina izan dira beste lorpen garrantzitsu batzuk. Beste enpresa batzuk ere etorri dira Euskal Herrira baina horien inguruan gutxiago hitzegin da. Korearren kasuak garrantzia du, atzerriko enpresa bat konturatu delako Euskadi egokia dela hemen kokatu eta bere produktuak Europara zabaltzeko. Gasteiza etortzea erabaki baino lehenago, korearrek ondo aztertu dute hemengo egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa.

- Egoera politikoa aipatu duzu, eta horren ildotik ETAk enpresak hona etortzea eragozten duela esaten da. Hori horrela da edo ETA despres-tijiatzeko esaten da?

- Hori egia da. Euskal

“Korearren kasuak garrantzia du, atzerriko enpresa bat konturatu delako Euskadi egokia dela hemen kokatu eta bere produktuak Europara zabaltzeko”.



“Arrasate Enpresa Berritzaileen Zentrua jartzeko toki onenetariko da”.



“Maltzaga-Urbina eta Beasain-Durango errepideak eraikita, Arrasate Euskal Herriaren erdian geratuko da oso ondo komunikatuta”.



“Langabezia %10era jeisteko gutxienez 10 urte beharko dira”.

Heria segurtasun gutxiko toki dela uste dute kanpoan. Komunikabideetan egunero azaltzen dira Euskadiri buruzko albisteak eta onak izan beharrean gehienak txarrak dira, biolentziarekin lotutakoak. Euskadiri buruzko irudi txarra dago kanpoan, eta gainera, irudi horri eustea komeni zaie batzueri. Korearrak ere ikuspegi horrekin etorri ziren, baina Euskal Herria ezagutu eta jendearekin hitzegin ondoren hemen finkatzea erabaki dute. Euskal Herriko egoera ez da hain txarra, beste toki batzuetan biolentzia handiagoa dago. Gertatzen dena da hemengoak zarata handia ateratzen duela, eta horregatik, asko hurbildu ere ez da egiten hemengo aukerak aztertzeraz.

- Herri batek zelan erakar ditzake enpresak?

- Beharrezko azpiegiturak jarriz eta lur industrialia gertu izanda. Enpresa batek herri batera etortzea erabakitzen badu, lurra gertu ez egotea oztopoa izango da. Baina hori ez da nahikoa; hemengo enpresek erakarri behar dituzte bai atzerriko enpresak eta baita bertakoak ere. Aukerak, gainera, ugariak dira: enpresa bat hona etortzea inbertsioak egiteko asmoz, edo hemengo enprekin batera inbertsioak egitea edo baita hemengo enpresen kapitalean parte hartzea. Nire ustez, hemengo enpresen eskuetatik etor daitezke inbertsio garrantzitsuenak. Orain arte Euskal Herrian izandako esperientzia ere horrelakoa izan da, lantegi gehienak hemengo enpresen bidez etorri dira. Arrasatek alor horretan badu abantailarik, kooperatibak bertan daudelako eta indartsu gainera. Kooperatibek inbertsioak erakartzen lagun dezakete.

- Azken urteetan industrialdeak ugaritu dira herrietan.




Zein emaitza eman dute?

- Oso ona. Gehienbat gaizki kokatuta zeuden enpresak toki egokiagoan jartzen lagundu dute industrialdeek. Horrez gain, lanpostu berriak sortzeko ere balio izan dute.

- Arrasaten Enpresa Berriendako Zentrua jarriko da. Zertarako balioko du?

- Enpresa berriak sortzeko. Arrasate, gainera, horre-



Iako zentru bat jartzeko toki onenatarikoa da. Ikerlan, Saiolan eta talde kooperatiboa bertan daude eta baita beste enpresa batzuk ere. Horietariko baten ekimenez, enpresak aurrera irten daitezke enpresendako zentruan. Arrasaten dauden esperientziak kontuan izanda, aukera asko dago enpresa berriendako zentruak Arrasaten arrakasta handia izan dezan.

Gaur egun horrelako bi zentru daude lanean, bata Gasteizen eta bestea Eibarren eta emaitza onak ematen ari dira.

- Inguruko eskualdeekin konparatuz, hemengo egoera ekonomikoa ona dela esaten da.

- Bai, bailara honetako egoera ona da. Kooperatibak ondo doaz, eta beste enpresa

txikiago batzueri ere lana ematen diete. Horrez gain, kooperatiba ez diren beste lantegi batzuk ere bide onetik doaz. Mankomunitatetik ere lan ona egiten ari dira. Nire ustez toki pribilegiatuan bizi gara.

Maltzaga-Urbina eta Beasain-Durango errepideak erakita, gainera, Arrasate Euskal Herriaren erdian geratuko da oso ondo komunikatuta. Bestalde, badakit Udaletxetik lur industrialak prestatzeko asmoa dagoena, eta hori beharrezkoa da lantegi berriak erakartzeko.

- MCCk eta Jaurlaritzak hitzarmena sinatuko duzue maiatzaren bukaeran. Zertarako?

- Hitzarmen horren arabera, Jaurlaritzaren Industria Sailak laguntza emango dio Korporazioari 80.000 milioi pezeta inbertitu eta 3.000 lanpostu berri sor ditzan. Lanpostu batzuk hemen eratuko dira eta beste batzuk kanpoan. Hitzarmen horrekin, gestio eta kalitateko programak abian jarriko ditugu. Plana zabala izango da, lau urtetan garatzekoa.

- Horrek esan nahi du beharbada lantegi berriak eraikiko direla?

- Zergatik ez! Gerta daiteke Arrasaten edo inguruan lantegi berriak eraikitzea. Hitzarmenean ez da jasotzen non eraikiko diren, baina lantegi berriak sortuko dira.

- Ez dago garbi Arrasaten egindako auto elektrikoak zein etorkizun izango duen baina Industria Sailak diruz lagundu du proiektua.

- Nire ustez automobil elektrikoak etorkizun ona izango du.

Hasieran hiri barruko garraiorako pentsatuta dago, eta alde horretatik etorkizun ona du. Orain autoaren teknologia garatu behar da, eta alor horretan aurreratzen dene-

an auto elektrikoak erabiliko dugu.

- Krisi ekonomikoa pasatuta da?

- Oraindik ez, eta epe motzera ere ez da pasatuko. Nire iritziz, krisia gaintzeko aldaketa handi bat eman behar da. Sistema ekonomikoa berri batera goaz, baina urteak behar dira sistema hori ezagutzeko. Urte askotarako krisia dugu, baina krisia ez dugu egoera txar moduan hartu behar. Krisia aldaketa garai bat da eta garai horretan ezin gara gelditu. Krisiari adarretatik helden badiogu aurrera egingo dugu, baina ezer egin gabe geratzen bagara pikutara eramango gaitu.

- Beraz, langabeziak iraungo du.

- Langabeziak jarraituko du. Gaur egun %23ko langabezia dugu eta %10era jeisteko urte asko beharko da, gutxienez beste 10 urte.

- Hemengo hainbat enpresek hirugarren munduan jarri dute lantegia. Merkeagoa delako?

- Egia da han merkeago produzitzen dela, baina batez ere merkatuak erakartzen gaitu. Europako merkatuan dena finkatuta dago baina beste toki batzuetan, Hegoameriketara, Txinan edo Afrikan adibidez, saltzeko aukerak daude. Enpresen etorkizuna toki horietan dago, denetik falta da eta.

- Industriari buruz hitzegin dugu bakarrik, baina zelan ikusten duzu nekazaritzaren etorkizuna?

- Azken urteetan esnearen produkzioan aurrerapen handia eman da Euskadin, eta nik itxaropena dut alor horretan.

Iparlatek aurrera egiten badu, nekazaritza eta abeltzaintza ere bide onetik joango dira.

Mondrak erraz galdu dezake hirugarren maila

3. mailako Mondrak kolokan du hirugarren mailan jarraitzea denboraldia bukatzeko bi neurketa falta direnean. Domekan Zalla liderraren kontra 1 eta 2 galdu eta gero, benetan beltz jarri zaio 3. mailako erronka Arrasateko taldeari. Orain Mondrak ez du bere esku mailari eustea, borroka horretan Santurtzi eta Zorroza taldeak ere sartuta daude eta. Zivojeciven taldeak Zorroza eta Getxoren kontra neurtuko ditu indarrak eta nahi eta nahiez garaipenaren bila zelairatu behar du. Mondrak bi aukera ditu dagoen mailan geratzeko. Mondrak Santurtzi baino lau puntu gehiago lortu behar ditu aurrera egin ahal izateko. Zorrozari dagokionez, Arrasateko taldeak sei puntuko aldea beharko luke eta horrela izanda, arrisku-tik kanpo egongo litzateke.

Mondrarentzat beraz, aukera gutxi eta zailak erre-



Txarto jarri da denboraldia Mondra talderentzat.

alitate bilakatzeko. Dena dela, azken ihardunaldira arte ez da itxaropena galdu behar. Izan ere, futbolak sorpresa ugari ematen du. Sorpresa onak eta txarrak. Espero dezagun geratzen diren bi ihardunaldietan Arrasateko taldearen aldeko emaitzak izatea horrela preferente mailako mamua uxatzeko.

Mondrak domekan arratsaldeko 5etan Zorrozaren bisita jasoko du Atxabalpen. Arrasateko taldean Treviñok ezingo du jokatu lesio-natuta dagoelako. Oxel Apraizek bestalde txartel gorria ikusi zuen azken partiduan baina errekurritu egin dute eta beharbada jotzeko aukera izan dezake.

LABURRAK

Arrasate - Oñati krosa

Laixan elkarteak antolatuta Arrasate-Oñati lasterketa burutuko da maiatzaren 19an. 11 kilometro eta 300 metroko lasterketa goizeko 11etan hasiko da. Izena emateko bi aukera daude. Aurrez 700 pta. ordainduz edo egunean bertan 1000 pezetaren truke. Aurrez eginez gero, Gipuzkoako Kutxa: 0010035004 edo Euskadiko Kutxa: 0050013742 zenbakietan sartu beharko da dirua maiatzaren 16a baino lehen. Egunean goizeko 10.30ak arte Portaloian eginkizun horretarako mahaiak jarriko dira. Sariak dirutan banatuko dira eta partehartzailerik guztiak kamiseta bana jasoko dute.

Urbina Maltzaga garaipenaren bila

Urbina maltzagak Fuenlabrada taldearen kontra jokatuko du zapatuan arratsaldeko 6etan Madrilan. Play offeko laugarren neurketa izango da eta Samaniegoren mutilek fase honetako lehen garaipena lor dezakete. Urbina Maltzagak Cazorla izan ezik gainontzeko jokalaririk guztiak gertu izango ditu. Cazorlak esker belauneko ligamentu gurutzatua hautsi zuen eta honendako bukatu da denboraldia. Carlus Groves amerikarra berriz, bertan izango da. Asteazkenean Pamesa Valencia taldea izango dute aurkaria Valentzian.

Arrasateko atletak bikain

Arrasate atletiko taldeko hainbat kidek Ordizian izandako Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte eta emaitza bikainak lortu zituzten. Anartz Azkarragak urrezko domina lortu zuen disko jaurtiketan, 37 metro eta 68 zentimetro jaurtiz, eta

pisu jaurtiketan zilarra 12 metroko distantzia lortu ondoren. Unai Sarabia 100 metroan 12 segundu eta 6 ehuneneko denborarekin lehen postuan geratu zen. Oliver Fernandezek hirugarren saria eskuratu zuen 600 metroan. Denbora:

minutu bat, 31 segundu eta 21 ehuneneko. Azkenik Iban Juez brontzezko dominaren jabea egin zen 1.000 metroan. 2 minutu, 37 segundu eta 20 ehuneneko bere denbora. Emaitza ezin hobekak Arrasateko ordezkariarentzat.

CRISTINA GARCIANDIA Doktoreak

jakinarazten dizue
DERMATOLOGIA KONTSULTA BERRIA
 zabaldu duela
 Arrasaten

Centro Médico Udalaiz (79 44 22)

Ferrerias, 56 • ARRASATE

San Andres Pilota Txapelketako irabazleak

Eskuz banakako San Andres txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan Iturripen. Benjaminetan Agirrek eta Losadak elkarren kontra neurtu zituzten indarrak. Partidua oso parekatuta hasi zen. Hasierako tantutan ez zegoen garbi norentzat izango zen txapelketa. Baina minutuak aurrera joan ahala, Agirre hobeto kokatu zen kantxan eta bere indarra eta maisutasuna erakutsiz nagusitzea lortu zuen. Agirrek 22 Losadak 17 izan zen azken emaitza. Alebin A mailan Arriaran eta Rodriguez IIak jokatu zuten finala. Hemen ere oso berdinduta ibili ziren bi pilotariak. Hala ere, Arriaranek erantzuna hartu behar zenean ez zuen kale egin eta Rodriguez baino kontzentrazio hobea erakutsiz 22 eta 19 irabazi zuen. Alebin B mailan Zuzua alde batetik eta bestetik Ugartetxe izan ziren. Txapelketako final politena izan zen. Aurreko partidua benetan lehiatsuak izan baziren ere, honen gainean beste horrenbeste esan behar. Bi



San Andres Txapelketako finalistak.

pilotariak 21 tantura jarri ziren. Une horretan Ugartetxe zuen sakea, baziduri bera izango zela garai baina ez zuen aukera aprobetxatu eta Zuazuak borobildu zuen azken jokaldia tantoa bere alde izanik. 22 eta 21 bukatu zen norgehiagoka. Infantiletan Dominguez IIk eta Etxeandiak elkarren kontra jokatu zuten. Dominguezek hasieratik erakutsi zuen kantxan Etxeandia baino gustorago zegoela eta hori jakina azken emaitzan igerri zen. Azke-

nean Dominguezek 22 Etxeandiak 11. Nagusietan bi pilotarien artean ez zen kolorerik egon. Lazkanok 22 eta 7 irabazi zion Miranda lehenari.

Asteburu honetan Herrien arteko Txapelketako neurketak jokatu dituzte Azpeitian gaueko 8etan ostiralean.

Kadetetan Lazkano eta Belategik ordezkatu dute Arrasate. Jubeniletan Etxeberria eta Rubia. Nagusietan berriz, Korta II eta Zuzubiskar.

LABURRAK

Txirindularien lasterketak

Arrasate afizionatu mailako txirindulari taldeak bi lasterketa izango ditu asteburuan. Zapatuan goizeko 10etan Markinan izango dute zita. 10 kilometro egiteko taldeko 10 txirindulari joango dira: Miguel, Cuartero, Fraile, Frutos, Sastre, Estevez, Valgañon, Zugasti, Lizaso, Arranz eta Larrea. Domekan Abadiñoko lasterketan hartuko dute parte. Txirindulariek 137 kilometro egin beharko dituzte eta Arrasatek Aperribar, Askasibar, Azkorra, Estevez, Lizaso, Cuartero eta Miguel joango dira.

Mondrako emakumeek

Mondrako emakumeek Oartzun taldea izango dute aurrean zapatuan arratsaldeko 4etan Atxabalpen. Oartzun Gipuzkoako kopako talde onena da. Mondrak beraz, ez du erronka makala. Gainera Juanina Garaiek hiru baja izango ditu: Kakun, Amaia eta Ainhoa.



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Gurutze Uribarren

Bederatzi urte umeengan musika zaletasuna pizten

Datorren larunbatean dela 9 urtetik SFXek antolatzen duen Deba Garaiko Eskolarteko Abesbatzen Topaketak ospatuko dira Amaia Antzokian. Zortzi eskola desberdineko 635 umeak abestuko dituzte jendaurrean kurtsoan zehar prestatutako kantuak. Gurutze Uribarren, SFXen 27 urte lanean daramatzen irakasle eta musikazalea, aurtengo topaketei buruz mintzatu da.

— Zein helbururekin jaitzen ziren Deba Garaiko Eskolarteko Abesbatzen Topaketak?

— Umeek eskolan egiten zituzten kantu entsaioei eta lanari zentzu bat eman behar zitzaizela eta umeak protagonista sentitu behar zirela ikusita, lehen Eskola Arteko Abesbatza Topaketak antolatu genituen orain dela bederatzi urte. Orain 23 urte inguru, topaketa honen antzerako bat egiten zen bailaran baina hiru urte baino ez zuen iraun ekimen horrek, beraz, ez zegoen herriaren aurrean ikasitakoa erakusteko modurik. Azkenean, topaketa berri bat egitea bururatu zitzaidan eta ikastolako zuzendariari proposatu nion. Lan handia egin genuen guztiok topaketa horiek ondo atera zitezen eta azkenean, arrakastasuak suertatu ziren. Lehen abesbatza topaketan sei taldek baino ez zuten parte hartu; aurten berriz, 13k parte hartuko dute.

— Zer azpimarratuko zenuke topaketa hauen inguruan?



— Topaketok berez daukaten mezua edo helburua. Eskolan egiten den lana azaltzeko modu bat da. Guk ez dugu kantu maila on bat ematerik nahi, hau da, konpetibitateak ez du lekurik topaketa hauetan. Umeengan kantuekiko eta musikarekiko zaletasuna piztu eta goza dezatela nahi dugu.

— Aurten 9. Topaketak ospatuko dira. Zein balorazio egiten du SFXek?

— Oso balorazio ona. Alde batetik umeen gurasoak oso gustora joaten dira

topaketetara eta bestalde, orain nagusi diren baina txikitatik topaketetan parte hartu dutenek oso oroitzapen polita gordetzen dute. Gainera, kontuan izan behar da Arrasaten betidanik egon dela musikarekiko ohitura handia. Zaharrei entzun diedanez, zartzuolak oso harrera ona zuen herrian eta parrokiako abesbatza ere oso ona izan da beti. Bestalde hor daude Juanito Arzamendi, Markaide, Ruiz de Alegria... musikarekiko zaletasuna oso bizirik egon da beti herrian eta horregatik gure semeek zaletasun bera sortu

zaie, musika gertutik bizi izan dutelako. Horrek guztiak asko lagundu du topaketen arrakastan.

— Zein adinetik aurrera komeni da umearen ahotsa lantzen hastea?

— Txiki txikitatik hasi behar da umearen ahotsa lantzen. Dena den, nik derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei irakasten diet eta tonoa ondo ematen, belarria lantzen eta erritmoak hartzen irakasten diet. Mailaz igotzen duten heinean abesti zailagoak lantzen ditugu baina hala ere, askotan atzera jo eta hasierako abestiak jorrotzen ditugu berriz. Izan ere, Euskal Herrian tradiziozko abesti on asko dugu eta horiekin lan egitea gustatzen zait.

— Araurik badago eskolek aurkeztu behar dituzten abestien inguruan?

— Bai. Euskaraz izan behar dira eta talde bakoitzak bi kantu aurkeztu behar ditu. Horetako bat gutxienez herrikoia izan behar du. Bestalde, debekatuta dago erritmo kaxadun instrumentuak erabiltzea, perkusiozkoak berriz bai.

— LOGSEK kaltetu ala lagundu egin dio eskoletako musika arloari?

— Nire ustez lagundu egin dio. Orain arte musika eskolak ez zeuden eskoletako derrigorrezko asignatura zerrendan sartuta. Orain berriz, ikastetxeak derrigorrezko sartuta daude. Artistika arloan plastika eta espresioa sartzen da eta horren barruan musika eta erritmoa.

Deba Bailarako eskoletako 635 umeak hartuko dute parte Amaia Antzokian izango diren topaketetan



Emaiozu ikutu bat zure bizitzari!

Ezkongaietan espezialistak.
Kolore berritzaileak Londresko teknikarekin.
Feeling-arekin egindako mozketak.
Zerbitzu osoa.

ESTETIKA:

- Estudio eta argazkitarako makilaia.
- Betileen tintea.
- Betileen permanentea.

Gorbea, 2 Behea Tfnoa: 77 09 44 ARETXABALETA

Aretxabaletako Institutua



Arrasateko eta Aretxabaletako Institutuak, geureak!!

BAILARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA



1996-97 hezkuntz eskaintza

ARETXABALETako Institutua:

- I.E.E.-R.E.M. (1. zikloa)
- I.E.E.-R.E.M. (2. zikloa)
- Batxilergo Tekniko Industriala (B.T.I)
- Heziketa Tekniko Profesionala (L.H.2-F.P.2)
 - Automozioa
- Modulo Profesionala III (M.P.III)
 - Sistema Automatiko Programagarriak


ARRASATEko Institutua:

- D.B.H.-E.S.O.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. eta 2.a)
- I.E.E.-R.E.M. (1. zikloa)
- B.B.B.-B.U.P. (1. eta 2.a)
- U.B.I.-C.O.U.
- H.S.A.O.L.-L.O.G.S.E. Batxilergoak:
 - Zientifikoa
 - Humanistikoa

Aurreinskripzioak maiatzaren 2tik 17ra. Eska ezazu informazioa:

Etxebarri Auzoa z/g.
Tfnoa: 79 79 00
Faxa: 77 09 55
ARETXABALETA

Sta. Teresa kalea, 25
Tfnoa: 79 44 47
Faxa: 79 44 37
ARRASATE



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

DERMATOLOGIA

ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1	☎79 72 16
---	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk.....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6	☎79 50 75
---	-----------

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

OTORRINOLARINGOLOGIA

ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....	☎79 20 18
---	-----------

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA


LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
---	-----------

“Mundopolis”: Iparra eta Hegoa aurrez-aurre antzerkian

Arrasateko eskoletako irakaskuntza ertaineko ikasleek eta EPA eta Lanbideko Eskolako ikasleek HEGO-Aren, Garapenerako eta Nazioarteko Ekonomia Ikerketarako Euskal Herriko Unibertsitateko Institutuaren “Mundopolis” proiektua ikusteko eta lantzeko aukera izango dute maiatzaren 13 eta 14an.

“Mundopolis” proiektuaren helburua iritzi publikoaren hegoaldeko herrialdeen garapen arazo eta herrialde horiek eta Europaren arteko harreman inguruan sentsibilizazioa da, bide batez etorkinen eta arrazakeriaren fenomenoak aztertuz. Proiektuaren ardatza herriz-herriz ari den antzerki saioa da. Saioa hiru istorioz osatuta dago eta istorio horiek munduan dagoen kultur aberastasuna adierazten dute, baita pertsona eta herrien baloreak ere.

Hiru antzerkiak Ernesto Caballeroren “Begiratzeaz aski badute...”, Jack Londo-



nen “Txinagoa” eta Ramon Barearen “Gulliver janari arinak” dira. Aktoreak berriz, Catalina Muñoz, Jone Iratzabal, Ramon Ibarra, Joseba Apaolaza, Agus Arrazola eta Asier Hormaza dira.

Ikasleek, antzerki saioak ikusteaz gain, hauen inguruan lan egingo dute. Horretarako baliabide didaktikoak banatuko zaizkie irakas-

leei. Baliabide didaktiko horiek “Mundopolis” Unitate Didaktikoa, “Junta-mundos” Garapenerako Hezkuntzarako Gida eta “Bajo el mismo techo” liburua” izango dira.

Hiru taldetan banatuta, Amaia Antzokira joango dira ikasleak “Mundopolis” proiektuko antzerkiak ikustera.

UDALEKUAK

Txatxilipurdiko Udalekuen aurkezpena

Txatxilipurdi elkarteak aurtengo udarako udalekuen deialdia egin du. Aurtengo eskaintzak bost udaleku mota desberdin biltzen ditu: Baby-lekuak (haur eskola, 1go, 2. eta 3. mailakoentzat), udaleku irekiak (OHoko 1go mailatik 8.era bitartekoentzat), udaleku itxiak Arabako Oza eta herrian (OHoko 3. mailatik 8.era-koentzat), iparralde eta hegoaldeko harremanak estutzea helburu duen Eskuz-esku udalekuak (OHoko 6. mailatik 8.era-koentzat) eta aurten berria den “Euskal Herriari Bira” izeneko udalekuak. Udaleku hauek 14-16 urte tarteko ikasleentzat dira eta dendetan lo eginez hamalau egunetan Euskal Herria ezagutzea du helburu.

Udaleku motaren eta iraupenaren arabera prezio desberdinak dituzte eskeintzak. Informazio gehiagorako 79 54 46 telefonora deitu.

Gazte Dinamizatzaile lanpostua

Egun erdiko kontratua.


Baloratuko dena:

- Gazteekin esperientzia.
- Ikasketak (magisteritza, tasoc, psikologia, pedagogia...)
- Begirale ikastaroa.
- Euskara menperatzea.

Kurrikulumak jasotzeko epea: Maiatzaren 17an

Txatxilipurdiko bulegoetan. Pablo Uranga, 6 Tfnoa: 79 54 46 ARRASATE





Argazkia ez da oso zaharra, baina hala ere zailtasun dezentte izan ditugu protagonisten berri jakiteko, bakarrik bost ezagutzera iritsi gara eta. 1982. urtean ateratako argazkia da, maiatzaren Iean Arrasaten egin zen langilearen eguneko manifestazioan. Gaur egun ia

bakoitzak bere aldetik ospatzen du maiatzaren 1a, baina orduan sindikatu guztiek elkarrekin zeharkatu zituzten herriko kaleak.

Argazkian ezagutzera iritsi garen bakarrak honako hauek: **Francisco Domin-**

guez, ezkerrean lehen lerroan dagoena. **Jacinto Romero**, aurrekoaren atzean, txuriz jantzita. **Isabel Tamames**, ezkerretik hasita pankartari eusten dion lehen emakumezkoa, bere ondoan **Candy Puerto**, eta honen segidan **Elvira Murillo**.

Arreta
handiko sukaldea

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Roberto Mendizabal

"Mendizabal"eko okina



- Zenbat ogi egiten dituzu egunean? 75en bat.
- Eta pasteltxoak? 700en bat egunean.
- Non ikasi zenuen lanbidea? Familian bertan. Nire familiak aspaldidanik egiten du lan honetan.
- Zenbat kilo hirina erabiltzen duzu egun baten? 125 edo 200.
- Zer temperatura egoten da ogia egiten den gelan? 30 gradu.
- Eta ogiaren labean? 190.
- Zein da ogi on bat egiteko sekretua? Presa barik ibiltzea. Ogiak ordu erdi egon behar du labe barruan.
- Zenbat ogi mota egiten duzu? 12 bat.
- Zuk ogi asko jaten duzu? Bai.
- Zenbat ordu egiten duzu lo? Gauetan bost eta arratsaldetan bi.
- Aktoresa bat? Michelle Pfeiffer.
- Maiteminduta zaude? Orain ez.
- Janari bat? Azpizuna.
- Gauetan irtetzen zarenean zer edaten duzu? Zuritoak.
- Ikusi duzun azken pelikula? Casino.
- Igo duzun mendirik altuena? Anboto.
- Nora egingo zenuke bidaia bat? Karibera.
- Egin duzu soldaduzka? Ez, libratu egin nintzen.
- Izenez aldatzekotan, zein aukeratuko zenuke? Mikel.
- Argazkiak koloretan ala zuribeltzean? Koloretan.
- Praka bakeroak ala pintzadunak? Bakeroak.
- Kirolari bat? Karpin.
- Zer oparituko zenioke neska bati bere urtebetetzean? Larrosa sorta bat.
- Baduzu animaliarik etxean? Ez.

LABURRAK

AEDko antzerki taldea Amaia Antzokian

Maiatzaren 18an gaueko 10.30etan AEDko antzerki taldeak Jose Martin Urrutiak sortutako "Nueva Zaragoza herriarrak" obra taularatu du Amaia Antzokian. AEDko antzerki taldea otsailaren 24an hasi zen antzezlanaren prestatzen eta geroztik larunbatero egin ditu entsaioak.

Hamaika antzerkilarik hartuko dute parte antzezlanean. Sarrerak 500 ptatan salduko dira. Langabetu, Gazte Txartelaren jabe eta AEDko bazkideentzat berriz, 300ean.

Ikasleen argazki erakusketa

Maiatzaren 13tik 19ra bitartean SFX ikastolako REMeko 1go eta 2. mailako ikasleek egindako argazkiak, fotonobelak, fotogramak eta erabili dituzten kamara ilunak egongo dira ikusgai Monterronen. Duela gutxi burututako Kultur Asteko argazki lehiaketako argazki saridunak ere izango dira bertan.

HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK, 3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxe: 77 10 74

BANKINTER

A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri zitezu aprobetxa dezakezuna.


Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egizu arren.

• ESAERA •

“Bizitza laburra dela esaten duen bati baino gehiagori eguna luzeegia egiten zaio”

HEBBEL

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Amerikan jaioa dena. 9. Irrigarria. 10. (Ald.) Otoiz-ordu txikietan azkena. 11. Galioa. 12. Zein tokitako. 14. Eros jainkoaren kontsonanteak. 16. Zoro. 17. Hegan egiteko organoa. 18. Konakry hiriburu duen estatua. 20. Itsasoan ugari. 21. Kasik. 22. Eguzki-sistemare zazpigarren planeta.

Bertikalak 1. Arrasateko lehen gerriko beltza. 2. Gutxiengo. 3. Nonnahi. 4. Boxeoan egiteko tokia. 5. Iparretarrak. 6. (Ald.) Zuek eta nik. 7. Ezkonkidea hil zaion pertsona. 8. (Ald.) Txakur. 13. Abisu. 15. Ereiteko landua den lursail. 19. Europioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Ahots horrekin edonork daki non zauden.

Taurus Buruan dituzun hiru ile horiekin benetan barregarri zaude.

Gemini Dena konponduko da uda heltzen denerako.

Cancer Kolesterola ederto jarriko zaizu horrela jarraituz gero.

Leo Maitemintzen zarenean hipnotizatuta geratzen zara.

Virgo Zezenari adarretatik heldu eta aurrera!

Libra Gero eta buru handiagoa duzu. Ez pentsatu hainbeste.

Scorpio Ez duzu ezertarako ganorarik, ezta jateko ere.


Sagittarius Inoiz ezer ikusi ez duzuenok itsuak zarete.

Capricorn Gauza gutxitan jartzen duzu arreta. Ez zaizu ezer axola?

Aquarius Psikiatra baten telefono zenbakia emango nizuke gustora.

Piscis Aurpegi beldurgarria izaten duzu astelehen goizetan.

• JEROGLIFIKOA •



Hil ez dena

ETOR ZAITEZ BERGARARA

ARTELAN BAT OPARITUKO DIZUGU

BEDELKAR elkarteko dendetan erosketak eginez, maiatzaren 21ean egingo den zozketan parte hartzen duzu. Irabazlea Bedelkarreko 105 dendetako eskaparateetan erakusgai dauden artelanetatik bat aukeratu ahal izango du.

DANETIK
ETA ONETIK...



BEDELKARREKO
DENDETAN

TELEBISTAREN TXOKOA



“Mondragón Unibertsitatea” Astebeten aztergai

Gaur gauean Maria Agirrek pil-pilean dagoen gaiari buruzko saioa aurkeztuko du, Mondragón Unibertsitateari buruzkoa hain zuzen ere. Unibertsitate berriaren sortzaileak Mondragón Eskola Politeknikoa (MEP),

Oñatiko Enpresa Eskola Teknikoa (ETEO) eta Irakasle Eskola (IE) dira. Proiektu honi buruz hitzegiteko Mondragón Unibertsitateko lehendakaria den Jesus Garmendia izango da Astebete saioan, informatiboak eta gero gaueko 9.30etari.

KOMIKIA



Zeguzar.

ROBERTO ZABALA ETXENAGUSIA

- Azaleko gaixotasunak
- Dermatokosmetika eta Benereologia

(Lagun-Aro)

KONTSULTA BERRIA!

MENDIA JAUREGIA-INSTITUTU MEDIKUA
Erdiko Kale, 22-1. ARRASATE Tfnoa: 79 72 16

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Amerikar. 9. Ridi-
kulo. 10. (Ald.) Anon. 11. Ga. 12. Non-
go. 14. Rs. 16. Ero. 17. Hego. 18.
Ginea. 20. Ur. 21. Ia. 22. Urano.
Bertikalak: 1. Aramegl. 2. Minora.
3. Edonon. 4. Ring. 5. IK. 6. (Ald.)
Kug. 7. Alargun. 8. (Ald.) Ro. 13.
Ohar. 15. Soro. 19. Eu.
Biziduna.

PROGRAMAZIOA



10 Ostirala

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Elkartean (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 9.30etan
Astebete
Gaia: Mondragon
Unibertsitatea
Gonbidatua: Jesus
Garmendia, Mondragon
Unibertsitateko
lehendakaria

13 Astelehena

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Astebete (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 21.30etan
Mondrasport

14 Asteartea

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Mondrasport (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 21.30etan
Barrelekaixoka

15 Asteazkena

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Barrelekaixoka (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 21.30etan
Nor Nori Rock
(Lehiaketa)

16 Osteguna

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Zinea (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 21.30etan
Elkartean
Egipe, Leze-Txiki,
Santamaina, Casino

17 Ostirala

- 13.30etan
Albiste aurrerapena
- 13.35etan
Elkartean (errep.)
- 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
- 21.30etan
Astebete

Etxebizitzak

- **Logela bat behar da Leioan edo inguruan.** Tfnoa: 77 04 07.
- **San Andresen pisua eta garage itxia salgai.** Tfnoak: 77 13 09 edo (908) 57 54 78. Goizeko 9etatik ordu batera edo arratsaldeko 4etatik 8etara.
- **Apartamentua alokatzen da Torreveijan hondartzatik 150 m. tarna.** Tfnoa: 77 03 85.
- **Etxebizitza salgai Urizarri Etorbidean.** Hirugarren pisua da. Tfnoa: 79 97 09.
- **Berriztatuko etxea salgai Erdiko Kalen.** 80 m². Iluntzetan dein egin 79 03 59 tfnora.
- **Santa Polan bungalow-a eta Torreveijan apartamentua alokatzen dira.** Hondartzatik gertu. Tfnoa: 79 32 54.
- **Garajea salgai Larragainen.** Tfnoa: 79 94 00.
- **Apartamentua alokagai Arrasaten.** 79 04 09.
- **Alokatzeko pisu baten bila nabil.** Mikel. 79 86 06
- **Biltegi bezala erabiltzeko** lokala alokatzen da. Tfnoa: 79 20 48.
- **Neska gazte** batek pisu txiki bat alokatuko luke. Tfnoa: 79 87 47. Virginia.
- **Ezcaray-en (Errioxa) pisua alokagai** uztaila eta irailean. Kirol instalakuntzarekin. Tfnoa: 79 31 56.

Lana

- **OHO eta REMeko ikasleei ingeleseko** klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 79 50 99
- **Frantseseko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 50 99.

- **Hogei urteko neska lan egingo luke** taberna, denda edo etxeetan. Tfnoa: 79 37 68.
- **Taberna lanetarako neska** euskalduna behar dugu Dukiena jatetxean. Tfnoa: (945) 44 50 86.
- **Idazkaritzan diplomadunak lanak** ordenaderez pasako lituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- **Latinezko klase partikularrak behar** ditut. Tfnoa: 79 74 92.
- **Informatiko batek matematika, fisika eta informatikako** klase partikularrak emango lituzke. Mailak: BUP, COU eta FP II. Lanak ordenaderez pasatzen dira. Tfnoa: 79 27 88.
- **Injinerutzako 1. mailako algebrako** klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 76 16 11. Egurdietan dei egin.
- **Esperientziadun neska gaztea** gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta goizez. Tfnoa: 79 31 44.
- **Neska bat behar da taberna baten lan** egiteko. Tfnoa: 79 00 34.
- **Emakumeak behar dira kosmetikan lan** egiteko. Tfnoa: 79 09 56. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Mutil euskaldun bat behar dugu** kirol denda baten lan egiteko. Bidali datuak 259 postakutxatilara.

Salerosketak

- **Biondi kompetiziorako bizikleta salgai.** Shimano konponenteak. Egoera ona. 50.000 pta. Tfnoa: 79 49 30.
- **Volkswagen 1.200 eskarabajoa salgai.** Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 07 75. Gauetan.
- **Seat Ibiza, SS-Z salgai** 150.000 pta. tan. Tfnoa: 79 97 38.

- **Kanpingean joateko bost** lagunendako karabana egoera onean salgai. Tfnoa: 79 18 60.
- **Seat Ronda G 5 CL salgai.** Bost atekoa. 12 urte ditu (SS-S). 83.000 km. besterik ez. Oso oso ondo dago. Interesatuak: 79 09 52.
- **R-5 salgai.** ITVa uztailean pasatua. 75.000 pta. Tfnoa: 79 38 97.
- **Nissan Vanette isotermikoa salgai.** Diesela. Egoera onean. Tfnoa: 21 18 55.
- **Ezkontzarako soinekoa salgai.** Gaueko 8etatik 10etara 76 06 53 tfnoan.
- **ZZR-600 motorra salgai.** Extra asko: parilla, alarma, depositoa babestekoa, kaskoa... Gauza asko berri berriak ditu, beltza eta larrosa kolorekoa da. Gertu gertu erabiltzeko. Tfnoa: 79 74 61. Juan Carlos.
- **Moto-bizikleta salgai.** Egoera eta prezio ona. Tfnoa: 79 33 10. Jon.

Denetarik

- **Independet markako wiski botilak** euskara-ingeles hiztegiaren truke. Tfnoa: 228 87 80. Edinburgo-Eskozia. Gorantziak denoi!
- **Emakumezko urre koloreko Seiko erlojua** galdu nuen San Viator Txiki inguruko parkean. Tfnoa: 79 80 25.
- **Urrezko pultsera bat aurkitu** dut San Andresen Amaia izenarekin eta data batekin. Tfnoa: 79 86 06.
- **Eresi inguruan urrezko lepokoa galdu** zitzaidan. Tfnoa: 79 54 63.
- **Funda urdinean neraman Vogar** markako betaurreko graduatuak galdu ditut. Iturripe edo Musakola aldean. Tfnoa: 79 94 91. Jon.
- **Gurutze txiki bat duen urrezko kataia** galdu dit Portaloi inguruan. Aurkitu baduzu dei egin 79 73 39 tfnora.

Aste Gazte

Lana

• Hezkuntza ertaineko herri ikastetxeetako ordezkapenetarako izengaien zerrenda ireki da, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan. Titulazio: doktore, lizentziatua, ingeniari edo arkitektoa. 1. eta 2. hizkuntz eskakizuna izatea eskatzen da. epea: etengabe-ko epe irekia.

Bekak

• Kultura eta Euskara Departamentuak 1996. urterako bekak, laguntzak eta poltsak emateko deia egin du. arloak: 1) musika, dantza, antzerkia, ikusentzute-

koak, arte plastikoak daudenak luzatzeko. 2) Arte plastiko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa bekak. 3) "Nicanor Zabaleta" musika beka. 4) Historia ikerketako bi beka. 5) Bideografia sorkuntzarako laguntzak. 6) Arte plastiko eta ikusentzutekoen arloan arte sorkuntzarako laguntzak. Guzti hauen epea: maiatzak 31. 7) Arte arloko iraupen laburreko iharduere-tan parte hartzeko, laguntza poltsak. Epea: ekainak 30. 8) "Musika konposizioko IV. Pablo Sorozabal lehiaketa". Epea: urtarri-lak 30.

Ikasketak

• Gogoratu, 96-97 ikasturtean Lanbide Heziketa, Lanbide Moduloak, IEE, Logse Batxilerrak, BBB... ikasketak hasteko asmoa duzenok, inskripzio ofiziala maiatzaren 17a baino lehen egin behar duzuela

Udako Oporraldiak

• Diputazioak antolatuta, 14-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako egonaldiak. Aisialdi eta kirol ekintzak... Leku, data eta prezio ezberdinak. Aurreinskripzio epea: maiatzaren 16ra arte.

• Hizkuntz egonaldiak: ingelese Segurako aterpean. 14-17 eta 18-29 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Kuota: 45.000 pta.

"Askatasun lasaia eta heldua gazteen askatasun kementsua baino eramangarriago da"

JULIO VILLAR IDAZLE ETA BIDAIA-RIA "IGANDEGIN"



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

RKUZ



altzariak

Udaberri-udako eskaintza bereziak

**MODELOAK
ERDI PREZIOAN!**

Araba Etorbidea, 20 • Tfnoa. / Faxa: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko muntaiak



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxa: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert

banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxa: 77 10 97



Aretxabaleta

Kotxe berria
2 urtetik behin



dagoeneko ez da
aberatsen kontua.

Multi,
Opción



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

MUGARRI